



Lanbide Heziketak 125 urte

Udal Euskaltegiak
Publikoak, irekiak, guztiontzat

EUSKARAZ

hARTU
hITZA

Da el primer paso,
aprende euskera.

UDAL
EUSKALTEGIAK

Matrikula
epea zabalik
Plazo de
matriculación
abierto
2024-2025

HADE Gaitza

MATRIKULA ZABALIK

Matrikulaldia: Irailaren 2tik 26ra

IKASTAROAK

Aurrez aurrekoak: 2, 3 edo 4 egun astean, mailaren arabera.
Autoikaskuntza Internet bidez.

Euskara ulertu eta euskaraz bizitzeko ikastaroak.

Mailak: A1, A2, B1, B2, C1, C2.

Azterketa prestatzeko ikastaroak: HABEren titulu ofizialak,
Administrazioa, Osakidetza.

16 urtetik gorakoentzat.

Langabetu, jubilatatu, ikasle eta gurasoek MATRIKULA ERDIA.
Ikastaro amaieran BEKAK denentzat. (Baldintzak betez gero).

Informa zaitetz Udal Euskaltegian!

MATRIKULA ORDUTEGIA

ELGOIBAR: 09:00-13:00 / 15:30-19:30

2024-2025

DEBABE UDAL EUSKALTEGIA

ELGOIBAR: Aita Agirre 3, 3.a - 943 742 731

**KARLISTALDIAK:
XIX. MENDEKO GERRA ZIBILAK ... ETA GEHIAGO**

**Agosti Xaho:
Lehen karlistaldiaren kontaketa**



Hizlaria: Xabier Zabaltza

Euskal Herriko Unibertsitateko Gaur Egungo Historiako irakaslea.

Hitzaldi honetan Agosti Xaho zuberotar idazle erromantikokoaren bizitza eta ideologia izanen dira aztergai, garrantzi berezia emanen zaiolarik Euskal Herriaz eta karlismoaz zeukan iritzia. Halaber, Zumalakarregiz eraiki den irudian izan zuen eraginean jarriko da arreta.

IRAILAK 26, OSTEGUNA

19:00

AITA AGIRRE KULTURGUNEKO ARETO NAGUSIAN



Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitako en erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta, Nagore Cancio **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria



youtube.com/@Elgoibarrennet

Leire Kerexeta Berasaluze

Ikaslea

(Ikast)urte berri on!



"Niretzat benetako urte berria irailarekin batera hasten da, eta ez urtarrilaren 1ean"

Irailak egin du aurrera eta berarekin batera burura etorri zait hurrengo hausnarketa. Niretzat benetako urte berria irailarekin batera hasten dela eta ez urtarrilaren 1ean. Ziur nago ni ez naizela *feeling* hau duen bakarra, seguru irakurtzen zaudeten askok nirekin partekatzen duzuela honako burutapena.

Ikasturte berriari hasiera indartsu bat emateko hiri ezezagun batera joatea izugarria izan daiteke. Dena berria izanik: ikaskideak, autobusa hartzeko lekua, lagunekin batera kafea hartzera ihes egiten dugun tokia, erosketak egiteko dendak... Azken finean, errutina berri batera moldatu eta egoera berriak bizitzeko une aproposa; baita honek ekarri ditzakeen, eta ziur ekarriko dituen, abenturak gogoz heltzeko momentua ere. Horregatik hausnarketa honetatik zera ateratzen dut: irailaren hasiera urtarrilaren hasiera baino urte berriago dela; ezta gutxi.

Urte berri ofizialarekin batera, guztiok egiten ditugu hamaika promesa; gehienak betetzeko denbora izaten ez dugun arren. Hots, kirol gehiago egin beharra, liburu bat irakurtzearen erronka, osasuntsuago jateko aipua... Hala ere, esango nuke irailean norberak bere buruari egiten dizkion promesak kutsu errealistagoa izaten dutela. Urtarrilean baino amets gutxiago egiten dugun seinale. Hilabete hau helmuga eta proiektu berriak martxan jartzeko garai moduan ulertzen delako, orokorrean.

Era berean, ziur naiz, une ezin hobean gaudela egunerokoaren balantzea eta horren inguruan egin beharreko hausnarketak egiteko; bai arlo profesionalean, baita arlo pertsonalean ere.

Horrela izanik, gogotsu nago hilabete honek eskainiko dizkidan kapitulu berriak irakurtzeko. Ziur benetako urte berri honek hurrengo urte askotan ahaztuko ez ditudan momentuak eta harremanak eskainiko dizkidala!

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Epai euskarafoboa

Duela gutxi jakin dugu Auzitegi Nagusiak berretsi egin duela Donostiako administrazioarekiko auzietako 3. epaitegiak abenduan emandako ebazpena: Donostiako Udalak bi udaltzain lanpostutarako egindako deialdian euskarazko B2 profila eskatzea baliogabetu du. Donostiako Udalak helegitea jarri zion ebazpen honi, baina Auzitegi Nagusiak atzera botatu du, udaltzainok euskara ezagutzea beharrezkoa ez dela argudiatuta. Nonbait, euskarazko profila eskatzea neurritz kanpoko eta diskriminatzailea da, lan-poltsaren helburua delako udaltzain faltari aurre egitea, eta hortaz euskara ezagutzeak bigarren mailakoa izan behar duelako.

Administrazio publikoaren eginkizuna herritarrei kalitatezko arreta eskaintzea da, eta

hizkuntza eskubideak urratuz ezin da zerbitzu egokirik eman. Euskara ezagutzen ez duen udaltzain batek ezin du hori bermatu. Auzitegien erabaki honek berriz ere euskararen normalizazioa trabatzen du, eta horrek euskaldunon eskubideei eragiten die.

Kontseiluak eta Bagera elkarteak deituta, Donostiako Alderdi Ederren elkarretaratzea egingo da, gaur, 19:00etan. Euskalgintzako ordezkariekin batera, Donostiako Udaleko EAJko eta EH Bilduko ordezkariak eta ELA eta LAB sindikatuetakoa ere bertan egongo direla adierazi dute.

A.A.



Udaka argazkien lehiaketa

Sariak

- EPAIMAHAIAREN SARIA: Bi lagunentzako bazkari/afaria Gabi jatetxean (dastatze menua)
- PUBLIKOAREN SARIA: Errigorako produktu sorta.

Bidali zuen udako argazkiak barren@elgoibarkoizarra.eus helbidera edo 688 655 658 whatsapp zenbakira, argazkia non egindakoa den zehaztuta.

Eman zure izen-abizenak eta harremanetarako telefono zenbaki bat.
Parte hartzeko azken eguna: **irailaren 23a**

Oinarriak: **barren.eus**





Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus



943 744 112



688 655 658



Lerun industrialdea zikinkeriaz beteta egoten da askotan:

"Txakurrearekin paseatzera joaten naiz sarri Lerun industrialdera, eta askotan zikinkeriaz beteta aurkitzen dut inguru guztia. Kristalak ere egoten dira eta hori txakurrentzat oso arriskutsua da, moztu egiten direlako. Ez dago gure bazterrak horrela lagatzeko eskubiderik".



Herri barruko autobusa ez da irisgarria adinekoentzat:

"Herri barruko autobusaren erabiltzaile gehienak adinekoak dira, eta zailtasunak izaten dituzte autobusera igo eta jaisteko. Eskailera oso handiak ditu eta altu daude gainera. Erabiltzaileentzako irisgarriagoa den autobus bat ekartzea eskertuko genuke, igotzeko eta jaisteko arrapala edo beste mekanismo erosoagoa duena".



EZ GALDU AUKERA PAREGABE HAU, AZKEN UNITATEAK!



%50 poliester eta %50 kotoia duten izarak 12 €-tik aurrera

%100 kotoia duten izarak 19 €-tik aurrera

Bisita gaitzazu!

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

Bizkaiko unibertsitateetara joateko autobus zerbitzua jarri dute Elgoibartik



Dagoeneko martxan dago Ziztu Unibertsitate Elkarteak Bizkaiko unibertsitateetara joan-etorriak egiteko eskaintzen duen zerbitzua. Ziztuk 176 egunetan eskainiko du autobus zerbitzua 2024-2025 ikasturtean, irailaren 6tik ekainaren 10era arte, Aldalur autobus konpainiaren bitartez. Hiru tarifa daude aukeran: egunerokoa, astelehen eta ostiraletakoa eta noizbehinkakoa. Aurten, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako foru departamentuak diruz sustatu du elkarteak, eta horri esker, tarifak merkeagoak izango dira. Ikasturtea 17,6 eguneko 10 kuotatan banatuko dute, eta ordainketak errazteko, kuota bakoitza hilaren hasieran ordainduko dute ikasleek.

Mendaroko eta Elgoibarko bidaiariak Usatorre ondoko autobus geltokian hartu eta lagako dituzte. Geldialdiak egingo ditu Deustun, Sarrikon eta Leioan. 07:00ak inguruan hartu ahalko dute autobusa.

Ordutegi zehaztuak, kuotei buruzko zehaztapenak eta alta emateko jarraibideak Zizturen webgunean topa daitezke: www.ziztuelkartea.eus.

Lorea Argaratek jasoko du Gladys Saria



Lorea Argarate Zubia (Bilbo, 1990) teknologo, dibulgatzaile eta musikariak jasoko du aurtengo Gladys Saria. Ingurune digitalean emakume gazteek garatutako ibilbidea saritu eta emakumezko erreferenteen proiektzioa bultzatzea ditu helburu Puntueus Fundazioak eta EHUko Informatika Fakultateak ematen duten sariak. Epaimahaiak Argarateren ekintzailetasuna, dibulgazio-lana eta ibilbide aberatsa nabarmendu ditu sariduna iragartzerako orduan.

Gurasoak eta familia guztia elgoibartarra ditu Lorea Argaratek, eta Elgoibarren pasatu ditu bere bizitzako etapa asko. Telekomunikazio ingeniaria da (Deustuko Unibertsitatea, 2016), eta TAZEBAEZ kooperatibako ekintzailea eta hezkuntza arloko berrikuntza eta digitalizazio prozesuetan dihardu Berlinen eta Bilbon. Oso gaztetatik bizi izan da zientzia eta teknologiaren dibulgazioan murgilduta, bertako eta kanpoko agenteekin harremanetan, jakintza partekatuz. STEAM ikuspegia oso presente izan du

Musikarekiko pasio handia duen pertsona da, eta klarinete karrera egina dauka, baina azken urteotan ezagunagoa da musika elektronikoan egin duen ibilbideagatik.

Hileta elizkizunak 19:30ean izango dira aurrerantzean

Joseba Gonzalez Elgoibarko eta Soraluzeko parrokoa da, eta bi herrietako lanak hobeto antolatu asmoz hiletetarako ordutegia aldatzea erabaki du. Aurrerantzean 19:30ean izango dira hileta-elizkizunak Elgoibarren, eta Soraluzen, berriz, 18:00etan.

Historiaurreko tresnen erreplikak egiteko lehiaketa jarri du abian Hezur Museoa

Jose Julian Marquezek urriaren 12an eta 13an ospatuko du historiaurreko erreplikak egiten hasi zeneko 20. urteurrena, eta horretarako bi eguneko egitaraua antolatu du. Ekintzen artean, historiaurreko tresnen erreplikak egiteko lehiaketa ere antolatu du: "Izan daiteke margolan bat, eskultura bat, silexa erabiliz eginiko tresna bat, ehizarako erreminta bat hezurrarekin, egurrarekin edo beste materialen batekin eginikoa...", zehaztu du Marquezek lehiaketara aurkeztu beharreko lanen inguruan, eta parte hartzera eta sormena lantzera animatu ditu herritarrak, bereziki gaztetxoek. Parte hartu nahi dutenek izena eman behar dute Whatsapp mezu bat bidaliz 650 353 566 zenbakira, izen-abizenak eta adina zehaztuta, urriaren 3a baino lehen.

Lehiaketaz gain, Historiaurreko gaietan adituak diren lagunak ekarriko ditu asteburu horretan Elgoibarrera: EHUko irakasle Mikel Agirrek historiaurreko gizakiek egiten zituzten harrizko tresna eta objektuen lanketaz hitzaldia emango du urriaren 12an, 11:30ean. Arratsaldean, berri, Historiaurreko erara sua egiteko tailerra emango du Edu Gordok eta Historiaurreko margoketa saioa egingo dute Saul Fernandezekin. 17:00etatik aurrera lehiaketara aurkeztutako tresnak erakutsiko dituzte, eta 19:00etan egingo dute sari banaketa. Hilaren 13an, domekan, bestalde, arku tiraketa jardunaldia egingo dute Idoroben, 11:00etatik aurrera. Euria egingo



balu, ekitaldi hau bertan behera laga eta Hezur Museoa zabalduko luke Marquezek.

20. urteurrena ospatzeko, bestalde, Hezur Museoko sarrera berritu eta apaindu du Jose Julian Marquezek. Horretarako, Actus Reus taldeko grafitigileei eskatu zien laguntza, eta haiek eginiko marrazkia dago orain museoko sarreran.

80 urtetik gorakoak eta urrezko ezteiak betetzen dituzten bikoteak omenduko dituzte urriaren 17an



Jubilatuen Astea antolatu du Elgoibarko Jubilatuen Biltokiak urrirako, eta ekintzen artean 80 urtetik gorakoak eta aurtien urrezko ezteiak betetzen dituzten bikoteak omenduko dituzte. Urriaren 17an izango da, 14:00etan. Ekimen horretan parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute. Urrezko ezteiak betetzen dituzten bikoteek urriaren 7ra arteko epea dute, eta 80 urtetik gorakoek urriaren 14ra arte. Jubilatuen Biltokian bertan eman behar da izena, astelehen eta ostiraletan, 11:00etatik 12:00etara. (📞 Artxiboko irudia)

Hirigintza eta mugikortasuna generoaren ikuspegitik landuko dituzte hilaren 24an, Lilan

H aizea emakume taldeak eta Altzolan Tren Geltokia Bai plataformak hirigintza eta mugikortasunari buruzko hitzaldia antolatu dute irailaren 24rako, eta generoaren ikuspegitik landuko dute gaia. Marta Ezquerecocha Diez politologoak emango du hitzaldia. 19:00etan izango da, Lilan. Aurkezpen honetan, hirigintza feministaren funtsezko printzipioak landuko dituzte, eta aztertuko dute pertsonak herrietan nola bizi diren. Bereziki, mugikortasunean jarriko dute begia, eta azalduko dute zein arazo dituen alor horretan Elgoibarrek, eta Altzolaren kasuan tren geltokiak dituen gabeziak aztertuko dituzte. Hizlariaren diskurtsoaren arabera, herri eta hiriak ikuspegi androzentrista batetik eraiki dira historikoki, eta oharkabean emakumeenganako indarkeria ekarri du horrek espazio publikoan. Hitzaldian aztertuko dute hiri eta herriak nola diseinatu daitezkeen modu inklusiboagoan.



'Bizi bizixa' bono kanpainan izena emateko epea zabalik dute saltokiek

Elgoibarko Udalak *Bizi bizixa* bono kanpainaren beste kanpaina bat jarriko du martxan, eta kanpainan parte hartu nahi duten saltokiek irailaren 30era arteko epea dute izena emateko. Udalak 30.000 euro inbertitu ditu kanpaina honetan. 4.000 bono aterako dituzte eta herritarrek %25eko deskontuak eskuratuko dituzte erosketetan. www.elgoibar.eus webgunean aurkitu daiteke kanpainan izena emateko formularioa.

65 urtetik gorakoek 3 euroan izango dituzte Herriko Antzokiko sarrerak

Elgoibarko Udalak jakinarazi du 65 urtetik gorako herritarrek (Elgoibarkoek zein kanpokoek) 3 euroan erosi ahal izango dituztela Herriko Antzokiko sarrerak. Zine, antzerki kontzertu eta edozein ikuskizun eszenikotarako balio du eskaintza honek, baina ez da metagarria izango dagoeneko martxan dauden beste bono batzuekin. Deskontu hori jaso ahal izateko, 65 urtetik gorako pertsonak NANA aurkeztu beharko dute Herriko Antzokiko leihatilan. Arduradunek eskatu dute emanaldia hasi baino 20 bat minutu aurretik agertzeko lehiatilara, jende ilarak sahisteko.

Bizitzari eta heriotzari beste modu batera begiratu eta pedagogia egiteko saioak antolatu dituzte

Elgoibarko Udalak, Almaur elkartearekin lankidetzan, *Bizitzari eta Heriotzari Begiratzeko Beste Modu Bat* izeneko ikastaroa antolatu du. Irailaren 25ean hasiko da hainbat hitzaldi eta saioz osatua egongo den ikastaroa, eta abenduaren 4ra arte iraungo du. Bizitzari eta heriotzeari oinarritutako pedagogia eskaintzea; sentimenduak, pentsamenduak, beldurrak eta zalantzak adierazteko gune terapeutiko bat eskaintzea eta heriotza bizitzaren parte gisa aurkeztea dira zikloaren helburu nagusiak.

Irailaren 25ean egingo dute zikloko lehen saioa, eta aurkezpen hori elkar ezagutzeko baliatuko dute. Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango da, 18:00etan. Gero, astean behin batuko dira, eguaztenetan, hamar astez, abenduaren 4ra arte. Saio guztietara joatea derrigorrezkoa ez den arren, ikastaroa bere osotasunean jarraitzea gomendagarria dela ohartarazi dute antolatzaileek. Informazio gehiagorako: berdintasuna@elgoibar.eus



Bernardo Ezenarro (biloba), Jesus Rementeria eta Amadeo Aizpitarteren senideak agintariekin.

ELGOIBARKO LANBIDE HEZIKETAKO AITZINDARIAK OMENDU DITUZTE

Elgoibarko Lanbide Heziketaren 125. urteurrena ospatzeko ekitaldia egin zuten eguaztenean, Elgoibarren. Duela 125 urte Marrazketa Akademia zabaldu zutenetik Lanbide Heziketak gaur duen erreferentzialtasuna lortzeko lanean jardun diren guztiak omentzeko ekitaldia izan zen funtsean. Ekitaldian, Begoña Pedrosa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak, Elgoibarko alkateak eta izandakoek, Lanbide Heziketako ikastetxeetako ordezkariak, Foru Aldundiko kideak, bailarako hainbat agintaririk eta hezkuntza eta enpresa komunitateko ordezkariak parte hartu zuten.

✍️ Ainara Argoitia 🗣️ Asier Orbea / Ainhoa Andonegi / Elgoibarko Udala

Ezohiko osoko bilkura batekin hasi zuten eguaztenean Elgoibarko Lanbide Heziketaren 125. urtemugako ekitaldi instituzionala. Udal Txistularien taldekoen atzetik sartu ziren pleno aretoan udal ordezkariak eta gainerako gonbidatuak, eta hartu zuen nork bere lekua: udal korporazioko kideak beren aulkietan, eta gainerako gonbidatuak, publikoan. Han ziren, besteak beste, Elgoibarko alkate izandako Jose Mari Oruesagasti, Jose Ignacio Elkoroiribe, Guillermo Garate, Maribi Agirregomezkorta, Alfredo Etxeberria eta Ane Beitia; Jon Labaka Lanbide Heziketako sailburuordea; Iker Aldazabal, Foru Aldundiko Plangintzako, Inbertsioetako eta Prestazio

Ekonomikoetako zuzendari nagusia; Juan Angel Balbas, Debegesako zuzendari gerentea; Xabier Ortueta AFMko zuzendari orokorra; eta eskualdeko udaletako ordezkariak, tartean Enetz Ezenarro Mendaroko alkatea; Lanbide Heziketaren 125. urtemugako batzordekide diren Axun Larrañaga eta Anton Bergara senar-emazteak, Edurne Bilbao, Iñaki Konde, Jesus Mari Astigarraga, Joxean Egaña, Jose Mari Bastida, Rikardo Astigarraga eta Pedro Mari Andonegi; Makina Erremintaren Historiazaleak taldeko Pello Arrieta; eta sindikatuetako, ikastetxeetako eta enpresa eta enpresa-elkarteetako ordezkariak. Mahaiburuan, Maialen Gurrutxaga alkatea eta Begoña Pedrosa



Jose Mari Beristain, Maialen Gurrutxaga, Begoña Pedrosa eta Alaitz Bastida. Ondokoan, publikoa.



Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua eseri ziren, eta haien albo banatan Jose Mari Beristain, Mekako zuzendaria, eta Alaitz Bastida, IMHko Lanbide Heziketako zuzendaria. Gonbidatuentzako esker-on berben ondoren, joan zen domekan hil zen Lucio Beitia Elgoibarko alkate izandakoa eta haren senide eta gertukoak izan zituen gomutan alkateak. Lanbide Heziketan irakasle ibilitakoa izan zen Beitia bera ere, eta hunkituta hitz egin zuen alkateak.

Aurkezpen lanak Garazi Ayesta kazetariak egin zituen, eta zuzenean jarraitu zuten ekitaldia Aita Agirre Kulturgunean bildu ziren beste zenbait gonbidatuk, telebista bidez. Lanbide Heziketako eskola sortzeko Udalak 1899ko irailaren 18an sinatu zuen agiriko pasarte batzuk irakurri zituen Ayestak, bai eta 1899an Marrazketa Akademia inauguratu zenetik Meka eta IMH zentroak finkatu ziren arte izandako gertaera garrantzitsuenen kronologia egin ere. Ondoren, Elgoibarko Lanbide Heziketaren 125. urteurreneko adierazpena sinatu zuten mahaiburuan eseri zirenek, zeinaren bidez hezkuntzarekin eta Lanbide Heziketarekin Udalak duen konpromisoa islatu zuten. Artisautza-industriako langileen prestakuntza hobetzeko sortu zuten duela 125 urte Elgoibarren Marrazketa Akademia, herriko artisauek eskatuta, eta hastapen haiek gogoratu eta Lanbide Heziketak hezkuntza berrikuntzaren funtsezko alderdietan gaur duen erreferentzialtasuna lortzeko lanean jardun diren guztiak omentzeko ekitaldia izan zen funtsean. Izan ere, gaur, hezkuntza sistema berritua da Lanbide Heziketa, industria modernoaren beharretara egokitutakoa eta unibertsitatera zabaldua.

Ekitaldia, baina, ez zen udaletxeko osoko bilkuran ikusi zenera mugatu. Izan ere, beste dozenaka lagun elkartu ziren Aita Agirren,

adierazpenaren sinatze-ekitaldia zuzenean jarraitzeko. Gonbidatuen artean aurpegi ezagun ugari zeuden, ekitaldiaren bigarren zatian protagonista izango zirenak zenbait. Lehenengo lerroan jarri zituzten Marrazketa Akademiako lehenengo zuzendari eta irakasle izan zen Bernardo Ezenarroren biloba, aitona zuenaren izen-abizen berekoa; Lanbide Heziketako eskola eraldatu eta ofizial bihurtu zuen Amadeo Aizpitarteren seme alaben ordezkaria -Juan seme gazteena-; eta Jesus Rementería, Amadeoren garaiko lehen promozioiko irakasle taldetik bizirik den bakarra. Baina gehiago ere baziren, jakina, denak ere Lanbide Heziketaren historiari estuki lotuak, izan agintariak, irakasleak, ikasleak eta inguruko enpresetako ordezkariak; areto bete lagun guztira. Ikusi genituen, adinekoen artean, besteak beste, Jesus Bilbao, Elgoibarko Industria Ikaskuntza Eskolako lehen promozioiko ikaslea; Ignacio Mugertza, Estartan artezteko makinetako zuzendari teknikoa izandakoa; Pedro Agirregomezkorta AGME enpresako kudeatzaile izandakoa; Angel Mari Ansola Analsakoa; Maite Unzueta, Señorita Anitaren erreina... Lanbide Heziketako ikasle eta egun enpresetako arduradun direnak ere baziren: Zubacorreko Patxi Beitia,

"Elgoibarko etorkizuna irudikatzen eta eraikitzen gaitasuna" izan duten guztiak izan zituen gogoan alkateak:

"Herri txiki, baina ausart honen bihotzean beti egon da ikasteko, berritzeko, ekiteko eta lanerako jendea"

Geminiseko Josu Unzueta, Berkoako Andoni Garcia Abad eta abar luzea.

Udaletxeko ekitaldia zuzenean jarraitu zuten Aita Agirren bildutakoek, erabateko isiltasunean, eta kanpora irten ziren gero, udaletxetik txistularien ondorik etorri zen segizioari harrera egitera. Aita Agirreko arkupeetan jarraitu zuen ekitaldiak. Maialen Gurrutxaga alkateak egin zituen sarrerakoak. Asteazkeneko ekitaldia Lanbide Heziketaren iraganaz, orainaz eta etorkizunaz hitz egiteko ekitaldia zela zehaztuz hasi zuen bere hitzartzea: "Iragana, atzera begiratu eta egindako lana aitortzeko; oraina, eskertzeko eta balioan jartzeko; eta etorkizuna, konpromisoak hartu eta elkarrekin aurrerako bidea markatzeko". Iraganari begira jarrita, Elgoibarko lehen Lanbide Heziketako ikasleak, Marrazketa Eskolaren hastapenak, eta "Elgoibarko etorkizuna irudikatzen eta eraikitzen gaitasuna" izan zuten guztiak izan zituen gogoan Gurrutxagak. "Herri txiki, baina ausart honen bihotzean beti egon da ikasteko, berritzeko, ekiteko eta lanerako jendea", esan zuen haiei zuzenduta. Alkateak gogora ekarri zuen Lanbide Heziketak enpresen eta enplegu kualifikatuaren sorrera sustatu eta hemen bertoko ekonomia indartu dituela, bai eta Elgoibarren izena Euskal Herrian eta mundu zabalean zabaltzeko ere, eta hori dena enpresa, hezkuntza-zentroen eta erakundeen arteko lankidetzari esker izan dela nabarmendu zuen, Mikel Laboak *Martxa baten lehen notak* kantuan jaso zituen Joxean Artzeren hitzak erabilita: "Bakoitzak urraturik berea, denon artean geurea".

Askoren artean egindako lanaren balioa aitortzeko baliatu zituen ondorengo hitzak Gurrutxagak, eta Lanbide Heziketaren historian

125 urtean Elgoibarko Lanbide Heziketan gorputz-arima aritu diren guztien ordezkari gisa, Bernardo Ezenarro, Amadeo Aizpitarte eta Jesus Rementeria nabarmendu zituzten

giltzarri izan diren hiru lagun omendu zituen ondoren, haiek guztien ordezkari gisa: Bernardo Ezenarro zena, "gazte askoren artean ikasteko grina sortu zuena eta gazte horiek Elgoibarko industriaren historian pertsona garrantzitsu izateko bidea jarri zuena"; Jesus Rementeria, Eskola ofizialdu zeneko bizirik geratzen den irakasle bakarra, eta Amadeo Aizpitarte zena, "Arte eta Lanbide Eskola eraldatzeko funtsezko pertsona izan zena eta Elgoibarko ezagutzak nora jo behar zuen jakiteko ikuspegia izan zuena". Omendutako hiru lagunetatik bakarra izan zen ekitaldian, Jesus Rementeria, beste biak hilak direlako, baina Bernardo Ezenaroren biloba eta Amadeo Aizpitarteren seme-alabak han ziren eta txalo zaparrada handi batekin hartu zituen publikoak.

Azkeneko hitzak etorkizunari eskaini zizkion alkateak, eta elgoibartarrak zoriontzeaz gainera, esan zuen formazioaren eta berrikuntzaren erreferente izaten jarraitzea dagokiola Elgoibarki mundu aldakorrean, eta horretan Udala bidelagun izango dutela beti hezkuntza zentro eta enpresek.

Jose Mari Beristain Mekako zuzendariari eta Alaitz Bastida IMHko Lanbide Heziketako zuzendariari eman zien hitza Maialen Gurrutxagak.



Maddi Zabala eta Irati Marcos dantzariak eta Elgoibarko Udal Txistulari Taldekoen agurra.

Gaur egun, sei arlotako eskaintza dugu Elgoibarren, Lanbide Heziketan: fabrikazio mekanikoa, instalazioa eta mantentze-lanak, ibilgailuen garraioa eta mantentzea, osasuna, administrazioa eta kudeaketa, eta gizarte-eta kultura-zerbitzuak. Espezialitate horiei esker, 1.000 ikaslek baino gehiagok parte hartzen dute urtero prestakuntza-zikloetan eta espezializazioetan. Bestalde, 2.000 pertsonak baino gehiagok jasotzen dituzte enplegurako prestakuntza-programak. Hain justu ere, pertsona horiek guztiak izan zituzten gogoan ikastetxeetako zuzendariak; ikasleak alegia. Eskertu zieten Lanbide Heziketa aukeratu izana beren formaziorako eta lan mundura salto egin ondoren ere, Lanbide Heziketarekiko agertzen duten konfiantza eta konpromisoa. Ikasleak ez ezik enpresak ere izan zituzten gogoan eta nabarmendu zuten "bikote banaezina" izaten jarraitu behar dutela Lanbide Heziketak eta enpresa munduak, gaur egungo erronkei erantzungo bazaie.

Gainerako mintzakideen ildo beretik aritu zen Begoña Pedrosa Hezkuntza sailburua ere berbetan. Atzera begira jarrita esan zuen herritarren nahi batetik sortu zela Elgoibarren lehen Marrazketa Eskola hura, inguruan sortzen ari zen industriaren beharrei erantzuteko, eta hain justu ere horixe jo zuen Lanbide Heziketaren arrakastaren gakotzat. "Gure inguruari entzun eta dituen beharriaz erantzutea da gure misioa. Enpresek behar duten eskulana eta konpetentziak garatzeko heziketa jasotzen dute Lanbide Heziketako ikasleek". Horren harira esan zuen Lanbide Heziketako ikasleen enplegarritasuna %90ekoa dela gaur, eta horri eusteko ahalegina egitea dagokiela gaur Lanbide Heziketaren ekosistema osatzen duten eragile guztiei: eskola, enpresak, enpresa-ekarteak, sindikatuak eta instituzioak. "Segi langile eta langabeak prestatzen, nazioarteko dimentsio eta aukerak eskaintzen ikasleei berrikuntza proiektuetan eta hain garrantzitsua den ekintzailtza sustatzen", eskatu zien.

Sailburuaren hitzak entzun ondoren, Mekako eta IMHko Lanbide Heziketako zuzendariak deitu zituen berriro aurkezleak eta baldosa-oroigarria bistaratu zuten Aita Agirreko eraikineko sarreran *Lanbide Heziketa Elgoibar. Iragana, oraina, etorkizuna. 1899-2024* dioena. Baina eraikinak langilerik gabe ezer ez direla esanda, Bernardo Ezenarrori eskainitako oroigarria bistarazi zuten



Goian, Aitz Bastida eta Jose Mari Beristain baldosa bistaraten, eta behean, Maialen Gurrutxaga eta Begoña Pedrosa Bernardo Ezenarrori egindako oroigarria bistaraten.

ondoren Maialen Gurrutxaga alkateak eta Begoña Pedrosa Hezkuntza sailburuak. Hementxe daude biak asteazkenaz geroztik, Aita Agirre kulturguneko aterpeko zoruan bata, eta eraikin-aurrera ematen duen beheko leihoetako batean bestea.

Ekitaldia Haritz Euskal Dantzari Taldeko Maddi Zabala eta Irati Marcos dantzariak omendu eta gonbidatu guztiei eskaini zieten agurrarekin amaitu zuten, eta ondoren, familia-argazkia atera zuten.

Elgoibarko Lanbide Heziketaren 125 urteetako kronologia

Elgoibarko Udaleko Osoko Bilkurak Lanbide Heziketaren 125. urteurreneko adierazpen instituzionala onartu zuen eguaztenean aho batez. Bertan jaso dute Elgoibarko Lanbide Heziketaren kronologia eta jarraian laburbildu dugu.

1951. urtean, Berrantolaketa Batzordea eratu zen, biztanle eta industriako lan eskariari erantzuteko Lanbide Heziketako Instituto bat sustatzeko. Hezkuntza Nazionaleko Ministerioak ofizialtasuna emateko beharrezkoak ziren pausuak eman zituzten, Amadeo Aizpitarte zuzendari zela. Hark, ikasketa-plana, etorkizuneko eskolarako behin-behineko araudiak eta patronatu bat sortzea proposatu zuen. **1953**ko abuztuan, Lanbide Heziketako Batzorde Zentralak irizpena eman zuen, eta Eskolari "Lanbide Orientazioa eta Heziketa" deitu zitzaion.

1958. urtean, Eulogio Estarta Ikasketa eskola sortu zen, 25 ikaslerekin, lantegiaren barruko eraikin batean, Nikaxi Andonegi zuzendari zela. 1962an, eskolak Ofizial mailako ikasketetarako baimena lortu zuen.

1964an, "Lanbide Orientazioa eta Heziketa Eskolak" eraikin berria inauguratu zuen, gaur egun, MEKako Ezenarro eraikina dagoen tokian, nahiz eta urte batzuk lehenago hasiak ziren klaseak bertan ematen. **1974**an, Elgoibarko Lanbide Heziketako Ikastegi Nazionala izatera pasatu zen. **1975**ean, Metala eta Automobilaren Mekanika eta Elektrizitatea eskaintzari, Administrazioa gehitu zitzaion, Ana Echeverría (señorita Anitaren) eskutik. Horrela, lanbide heziketan, ikasle emakumeen presentzia handitu zen. **1984**an, eraikina handitu eta Zenbakizko Kontrolako makinaz hornitutako gela bat martxan jarri zen.

1986an, IMHren proiektua diseinatzen hasi ziren. 1989an, Makina Erreminta Arloko



1952-1953 ikasturtearen amaiera: Jesus Rementeria, Ladislao Irureta, Javier Arriola 'Pitxirri', Victor Zabala 'Galboso', Jose Elkoroiribe, Vicente Elkoroiribe, Julen Zabaleta 'Yulen', German Pedrosa. Makurtuta: Vicente Unzilla, Jesus Mari Ansola 'Orue'.

Heziketa Teknikorako Fundazioa eratu zen, Makina Erremintaren Institutu Esperimentala abian jartzeko, eta 1991/92 ikasturtean martxan jarri ziren Diseinu, Fabrikazio eta Muntaiko eskolak, Jose Rejo zuzendari zela. **1997**an, Makina Erremintaren Museoko fundazioa sortu zuten.

2001ean, enpresetako eskaerak bultzatuta, gune berri baten beharra sortu zen, eta enpresa eta erakundeen laguntzak MEKArekin eraikin berria ahalbideratu zuen Albitzuri industriagunean. Bitarte honetan, Lanbide Heziketa Bateratuaren legeak bultzatuta, **2008/09** ikasturtean, MEKA Lanbide Eskola sortu zen ofizialki.

2016an, IMHk, enpresa eta erakundeen laguntzarekin, eraikin eta instalazio berriak inauguratu zituen, Lanbide Heziketako Berrikuntza Aplikatuaren eta Ingeniaritza Dualaren Eskolaren jarduera garatzen jarraitu ahal izateko.

Honen guztiaren ondorioz, Lanbide Heziketako bi eskola ditugu gaur egun Elgoibarren, CIFP MEKA LHII eta CIFP IMH LHII, ikastetxe integratuak direnak. Bi eskola horietan, ondorengo eskolak ematen dira: fabrikazio mekanikoa, instalatze eta mantentze lanak, garraioa eta ibilgailuen mantentze lanak, osasungintza, administrazioa eta kudeaketa, eta gizarte eta kultura zerbitzuak. Guztira, ikasturte bakoitzean, 1.000 ikasle baino gehiagok dihardute ziklo eta espezializazioetan, eta 2.000tik gora ikasle ari dira lanerako prestakuntzan.



Jendea, Lanbide Heziketaren baliotsuena

Elgoibarko udaletxean hasi eta Aita Agirre kulturunean amaitu zuten asteazkenean Lanbide Heziketaren aitzindariak omentzeko egindako ekitaldia, hain justu ere, 1899an Marrazketa Eskola egon zen eraikinaren atarian. Elgoibarko alkate Maialen Gurrutxagak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu Begoña Pedrosak eta MEKako zuzendari Jose Mari Beristain eta IMHko Lanbide Heziketako zuzendari Alaitz Bastidak hartu zuten hitza ekitaldian, eta Elgoibarko Lanbide Heziketak munduan gaur duen erreferentzialtasuna izatea ahalbidetu duten guztien omenez, oroigarria eta lore sorta bana jaso zuten Bernardo Ezenaroren bilobak (izen berekoa), Jesus Rementeriak eta Amadeo Aizpitarteren seme-alabek. Bukieran, familia argazkia atera zuten ekitaldira batu ziren guztiek, elkarrekin.







Juan Angel Balbas (Debegesa), Jon Labaka (Jaurlaritza), Ixaka Egurbide (IMH) eta Miguel Angel Carrera (AVS).



Jose Antonio Hidalgo (Danobat), Francisco Javier Fernandez (Goimek), Jose Perez Berdud (AFM), Edurne Bilbao (IMH).



Joxean Egaña (IMHri)



Jesus Bilbao, Elgoibarko Industria Ikaskuntza Eskolako lehen promozioko ikasle ohia 1954-1957)

Lanbide Heziketa: herri heziketa

Poza ematen dit Lanbide Heziketak nire herrian mugarriak ezartzen jarraitzen duela jakiteak, eta sekulako maila lortu ondoren, horretan jarraitzeko ahaleginean jarraitzen duela ikusteak. Berriz ere, bere gobernu-organo gorenak (Udalak) gidatutako herriak, 125. urteurrena ospatzen du.

Lanbide Heziketa izan zen nire ikasketen plataforma-giltzarria. Elgoibarko ikastetxe publiko eta pribatu guztietan ikasi nuen, Lanbide Ikaskuntza Eskolan amaitu nituen ikasketak (lehen promoziokoa izan nintzen) eta plataforma horren gainean ekin nion lan eta enpresa munduko nire ibilbideari.

Arte eta Lanbide Eskolaren buru zen Bernardo Ezenarro jardunean ezagutzeko zortea izan nuen. Are, haurra nintzela, haren marrazketa klase batera ere joan nintzen, baina ez nintzen gehiago itzuli, hura ez zela nik nahi onena sentituta. Gauza bera egin nuen gero solfeoarekin. Edonola ere, historialariek ederki deskribatzen dituzte Bernardo handiaren dohaiak, eta nik horiek denak aitortzen dizkiot, Arte eta

Lanbide Eskola izenarekin lanbide ikasketen hasiera bultzatzeagatik. Industrializazio-prozesu azkarrak, baina, une hartako pentsamoldearekin ezkontzen ziren izendapenak behar zituen, eta desagertu zen artearen aipamena izenetik.

Lanbide Heziketari lotutako nire ibilbidean, aurrez beste zenbaitetan egin nuena errepikatzeotan egon nintzen, baina anaia Luisek abiatzeaz zen Industria Ikaskuntzako Eskola proiektuaren berri eman zidan, eta izena ematea erabaki nuen, ikasketa haiek Señorita Anitaren akademiakoekin uztartuta. Oso nota onarekin gainditu nuen sarrera-azterketa. Dena den, administrazio kontuetan lana lortu bezain laster ikasteari uztea zen nire asmoa, baina, hara non, Amadeo Aizpitarrek lideratutako erakunde batekin topo egin nuen. Era guztietako zailtasunak gainditu ondoren, eskolarentzat Hezkuntza Ministerioaren ofizialtasuna lortu eta kalitate bikaineko irakasle-taldea antolatzeko gai izan zen gizona izan zen Amadeo (uste dut herriarentzako egin zuen berebiziko lana aitortuko duen kontakizun historikoa zor diogula).



*eta Imanol Iturria
lotutakoak).*



*Karlos Ansola, Alberto Iturricastillo eta
Axun Larrañaga (Mekari lotutakoak).*



*Jose Mari Bastida (MEKA-IMH) Jose Mari
Etxaniz (Filatelia elkarte) eta
Iñaki Konde (Meka).*

Nolanahi ere, nire bizitzako une garrantzitsuenetako bat martxoaren 15 batez gertatu zen, Amadeok, zuzendariak, bere bulegora deitu eta jakinarazi zidanean nire izena emango zuela sortu berri zen enpresa bateko bulego teknikoan proiektugilearen laguntzaile izateko. Enpresak Danokbat izena zuen garai hartan, baina handik gutxira Danobat izena hartu zuen, marketin kontuengatik. 1956ko martxoaren 20ko goizez hasi nuen nire historia Danobaten.

Orduz geroztik, bizitzaren paradoxak, Lanbide Heziketarekin lotutako gaietan aritu naiz. Lanbide Heziketak hainbat enpresa, zentro teknologiko etabar sortu eta garatu ditu eskualdean, eta Elgoibarren, makina-erremintaren garapena bultzatu duen plataforma izan da. Gaur, Meka eta IMH zentro handiekin, liderra da Elgoibar Lanbide Heziketan. 1989an bere Fundazioa eratu zenetik, IMHk Lanbide Heziketa berritzeko eta eraldatzeko izaera izan du. Aldi berean, ingeniari-tza-ikasketak ere sortu zituen 1996an, prestakuntza dualaren modalitatearekin, eta, azkenean, EHUko unibertsitate-campusean sartu da, fabrikazio aurreraturako aparteko prestakuntza-eskaintzarekin.

Errementariak katedraletan egin zituzten arte-lanetatik bere gaitasuna eta inspirazioa sendotzera pasatu da, beraz, Elgoibar Lanbide Heziketarekin, eta makina-erremintaren hiriburu bihurtu da. Eta prozesu historiko hori ikusteko



aukera paregabea eta alderaezina eskaintzen digu Elgoibarko Makina Erremintaren Museoa.

Kontakizun hau Lanbide Heziketari buruzko gogoeta filosofiko honekin amaitu nahi nuke. Lehen Hezkuntzarekin batera, herriko eskolarik garrantzitsuena da Lanbide Heziketa; jarduera ugari sortzen ditu eta pertsona askori ematen die lana; teknikari kualifikatuak (gaur egun tailerretako langile guztiak), ekintzaileak eta autodidaktak sortzen ditu zeintzuek unibertsitate ikasketak dituzten askoren pare lan egiten duten... Eta, gainera, orain badugu Elgoibarren sateliteak ekoizten dituen lehen euskal enpresa, zeinak Elgoibar aukeratu zuen bere egoitza zabaltzeko, aipatutako arrazoi berberengatik.



Zaira Zanguitu 'Azken Erromantikoak' filmaren grabaketa lanetan. (📷 Unai Mateo)

Elgoibarren filmaturiko 'Azken erromantikoak' filma zinemaldian estreinatuko dute

ZAIRA ZANGUITU

Zine zuzendari laguntzailea

✍ Leire Urkidi

Zaira Zanguitu zuzendari laguntzaileak ekarri zuen errodamia Elgoibarrera eta irrikaz dago astelehenean filma pantaila handian ikusteko. Estreinaldia Donostiako Nazioarteko Zinemaldian egingo dute eta zinemagile ororentzat albiste ezin hobea da hori. Bernardo Ezenarro enpresaren lehengo lantokia, Erretsundiko etxebizitza bat eta Aiaztia auzoko zuhaitzi bat dira filmak erakutsiko dituen Elgoibarko irudiak. Horrez gain, Veneziako Mostran estreinatu berri den 'Marco' filmean lan egin zuen iaz Zanguituk. Espainiako Zinema Akademiak Oscarretarako bidean jarri du filma, aukeratutako hiru filmetako bat izan da, eta azkenean Hollywoordera 'Segundo Premio' iritsiko bada ere, aukeraketa horrek pisu handia du edozein pelikularentzat.

Nola sortu zen Elgoibarren filmatzeko ideia?

Lantegi bat behar genuen, eta Elgoibarren falta ez direnez, zuzenean lagunei galdetu nien. Batek, Bernardo Ezenaroren aurreko lantokia hutsik zegoela aipatu zidan eta gauean, familiarekin afaltzen nengoela, gaia atera nuen. Hala zela baieztatu zidan amak eta aukera egokia ikusten zuela. Berak egin zidan kontsulta; jabeekin hitz egin eta ateak ireki zizkiguten, baita erraztasun guztiak eman ere. Oso eskertuta nago; plato bat bihurtu zen guretzat.

Zer suposatu du zuretzat herrian filmatzeak?

Madril bezalako hiri batean bizi garenontzat lantokira oinez joateko aukera izatea eskertzekoa da eta ez hori bakarrik, amaren janari goxoa *catering*-agatik aldatzea ere bai. Zuzendaritza talde osoa gurasoen etxera eraman nuen eta denok eskertu genituen bazkari haiek. Azkenean astebete baino gehiago eman genuen Elgoibarren.

Alde onez gain, alde txarren bat aurkitu zenuen?

Eskailera-buru edo atari zabala behar genuen filmatu ahal izateko eta nire amama eta lehengusina bizi diren etxeokak halakoak dira Erretsundin. Bertan errodatzea erabaki genuen, bizilagun gehienek txikitatik ezagutzen nauten lekuan eta hori zoragarria izan zen. Eskertzekoa da haien jarrera ona, baina Madrilen egon banintz agian ez nuke hainbeste sufrituko; ez nituen behar baino eragozpen gehiago sortu nahi, haien jarrera ona ikusita.

David Perez Sañudo da 'Azken erromantikoak' filmaren zuzendaria eta zuzendari laguntzailea zu. Zein da zure ardura?

Nire ardura zuzendariaren buruan sartzea da, bere buruan dagoena ulertzea eta bere ikuspuntua nireganatzea; hau da, filma aurrera eramateko plangintza erosoena bideratzea.

Bere bigarren luzemetraia da hau; 'Ane' izan zen aurrekoa. Donostiako zinemaldian estreinatuz hasi zen eta Goya sariak eskuratuz jarraitu zuen. Non dago bere arrakastaren sekretua?

Lana oso serio hartzen du, inplikazioa erabatekoa da. Horrez gain, berak badaki giro hori lantaldere eramaten eta azkenean norberak ere, berak bezalaxe sentitzen du filma. Bestetik, pertsonaien barne-munduak lantzeko moduak nabarmentzen du David Perez Sañudo zuzendari moduan.

Aktoreekin harreman zuzena duen zuzendaria da?

"Burbuila entseguak" bezala izendatu genituen saioak egitea erabaki genuen. Reality show bat balitz bezala, aktoreak bi egun osoz murgildu genituen. *Azken erromantikoak* proiektuan. Bertan, zuzendariak aktoreekin inprobisazioa landu zuen. Horrela, aktoreak egoera ezberdinetan jartzen zituen, behin bakoitzak bere pertsonaiaren izaera ondo bereganatuta zuenean. Lan hori errodatean islatu zen eta inprobisazioak emaitza onak eman zituen.

Zertaz doa 'Azken erromantikoak' filma?

Filmak irekitzera ausartzen ez garen ateez edo hartzera ausartzen ez garen trenez hitz egiten digu. Edonoren bizitzan noizbait gertatu ohi den egoera horretaz.

"Nik ez dut oso gustuko kamera aurrean agertzea, baina ezin nion uko egin fikzioan Eduard Fernandezen ama izateari"

Irune, Miren Gaztañaga aktorearen pertsonaiak, pisu handia du filmean. Zer suposatu du berarentzat eta lantaldearentzat horrek?

Mirenek lan ikaragarria egin du proiektu osoan. Protagonista da eta pertsonaia horren ezaugarriengatik pisu gehiena bere gain erori da, eta ez da erraza eramaten. Egunero 11 orduz pertsonaia horren energia ez galtzea oso zaila da. Gainera, zineman istorioak ez dira kronologikoki filmatzen eta lana ondo egiteko, pertsonaia oso barneratua izan behar da, istorioan uneoro pertsonaia emozioz nola dagoen argi izateko. Mirenek zama hori eramateaz gain, lantaldea animatzen zuen; besteoi lana errazteaz arduratzen den pertsona da. Gainera, errodateek askotan etxetik urrun egotera behartzen gaituzte. Film honek Sevilla eta Lisborara ere eraman gintuen eta lankideak "familia" bihurtzen dira egoera



Zaira Zanguitu, Zuriñe Etxeberria eta Miren Gaztañagarekin Lisboan.



Zaira Zanguitu 'Marco' lanaren filmaketan Eduard Fernandezekin. (📷 David Herranz)

horretan. Miren pertsona oso maitatua izan da taldean, batetik, bere profesionaltasunagatik eta bestetik, den modukoa izateagatik.

'Azken erromantikoak' filma Txani Rodriguez idazlearen 'Los últimos románticos' eleberrian oinarrituta dago. Filma eskaini zizutenean liburua irakurrita al zenuen?

Nik idaztea gustuko dut eta Madrilen idazkera lantzeko hainbat ikastaro egin izan ditut. Ondo idazteko, idazteaz gain, asko irakurri behar da. Beraz, irakasleak hilerio liburu bat proposatzen zigun eta kasu hartan irakurketaren ondoren, online hizketaldia izan genuen Txani Rodriguezekin. Galderak egin nahi nizkion, baina lotsak geldiarazi ninduen, berak liburuaren eskubideak film bat egiteko saldu zituela aipatu zuen arte. Une horretan galderak egitera ausartu nintzen. Handik hilabete batzuetara filmean parte hartzeko proposamena egin zidaten, eta gidoia irakurri ostean baiezkoa eman nuen. Nire buruan liburua irakurtzean irudikatutako mundua irudietan islatzea oso erakargarria iruditu zitzaidan. Txanirekin elkartzeko aukera eman zidan horrek eta ilusioa egin zidan bera gure solasaldiaz oroitzen zela jakiteak. Gure harremanak pantaila zeharkatu zuen, eta, bera ezagutzea gustatu zait.

Uda honetan filma Donostiako Zinemaldirako aukeratua izan zela jakin zenuenean zer sentitu zenuen?

Donostiako Nazioarteko Zinemaldia erakustoki



David Perez Sañudo zuzendariarekin lanean. (📷 Unai Mateo)

ezin hobea da filma estreinatzeko. Leiho erraldoia irekitzen zaie filmei, bai zinema aretoetan egotea bermatzeko, eta baita gainerako zinemaldietako atek errazago irekitzeko ere.

'Azken erromantikoak' filmaz gain iaz Aitor Arregi eta Jon Garañok zuzenduriko 'Marco' proiektuan lan egin zenuen. Veneziako Nazioarteko Zinemaldian, Mostran, estreinatu berri dute eta Donostian Perlak sailean izango da ikusgai. Horrez gain, Oscarretarako lehian sartuta dago. Zer sentitzen da horrelako proiektu baten parte izaterakoan?

Urte berean horrelako bi proiektu interesgarritan lan egiteko aukera izatea pribilejio hutsa da. *Loreak, 80 egunean, Handia, La Trinchera infinita...* gertutik jarraitu izan ditudan lanak izan dira eta zuzendari horiekin lan egiteko aukerak asko irakatsi dit. Eduard Fernandez aktorea da protagonista, arrakasta dela eta zuzendari askorekin lan egin du, eta adierazi nahi dudana adierazteko, bere hitzak lapurtuko dizkiot: *"Zuzendari hauena beste mundu batekoa da. Eskutik neramatela sentitzen nuen. Sentsibilitate hutsa dira"*.

Azkenean filmean Eduard Fernandez, (Marcoren), ama izaten amaitu duzu. Nola iritsi zinen horretara?

Zuzendariak Marcoren ama izateko eskatu

"Donostiako Nazioarteko Zinemaldia erakustoki ezin hobea da filma estreinatzeko"

zidaten filmean erabiltzen den argazki batean. Moriarti taldeko zuzendarien filmeetan ia lan talde osoa agertu ohi da pantailan; ekipoarekiko keinu polit bat da. Nik ez dut oso gustuko kamera aurrean agertzea, baina ezin nion uko egin fikzioan Eduard Fernandezen ama izateari (barre eginez aipatzen du).

'Lasa eta Zabala', 'Ventajas de viajar en tren', 'Voy a pasármelo bien', 'El salto'... ikus-entzunezko 40 proiektu baino gehiagotan parte hartu duzu, gehienetan zuzendari laguntzaile gisa. Zure proiektua zuzentzen ikusiko zaitugu?

Zineman lan egiten dugun askok, era batean, horrekin amesten dugu eta nik baita ere. Noizko? Zeinek daki, bidean nago eta ez da gutxi. Erraza ez bada ere, ea laster izan daitekeen.



TXANI RODRIGUEZ, idazlea

"Zaira irakurketa klub batean ezagutu nuen eta berarekin berriz elkartzeko aukera izatea kasualitate pozgarria iruditu zitzaidan. Erro-dajejan berarekin egoteko aukera izan nuen eta gertutik jarraitu nuen bere lana. Zeharo harritu ninduen bere konzentrazio-gaitasunak, ha-maika gauzataraz egonik ere, gai da une bakoitzean atera behar duena aurrera ateratzeko".



MIREN GAZTAÑAGA, aktorea

"Zairarekin lan egitea opari handia izan da. Profesionala da, zorrotza da lanean, baina era berean zaindu egiten zaitu. Profesionaltasuna zaintza humano batekin eskaintzen dizun pertsona da. Bi gauzak askotan ez dira pertsona berean ematen, baina Zaira hori posible denaren adibide bat da. Egun zailetan hor dagoen lankidea da, bidelagun paregabea. Produktzioan ere izugarri lagundu du: Elgoibarren egon ginenean bere amamaren atarian egon ginen eta fabrika ere bere bidez lortu genuen. Filmeko pisu handiko bi lokalizazio dira. Oso eskuzabala da, dena ematen du, batzuetan gehiegi ere bai! Gainera alaia da eta lan egunak zozagarriak egiten ditu. Plazer handia izan da berarekin lan egitea".

Lucio Beitia hil da, 1983. urtetik 1987ra Elgoibarko alkate izan zena

Lucio Beitia Mugabure hil zen domekan, 1983. urtetik 1987ra Elgoibarko alkate izan zena. 86 urte zituen eta astlehenean egin zioten azken agurra, Elgoibarko San Bartolome parrokian.

Debarra zen sortzez Beitia, sei neba-arrebetan laugarrena, familia abertzalekoa. Berak esana da, baina, politikagintzara oso lagun zituen bi lagunek eraman zutela, ideologiak eta bokazioak baino gehiago: orduan Debako alkate zen Ramon

Galarragak eta Luis Arrietak, sasoi hartan Elgoibarko alkate zenak (1979-1983 legegintzaldia bete zuten). Dena egiteko zegoen garaiak ziren eta bide urratzaile izatea egokitu zitzaion garai hartan herria gobernatzeko ardura hartu zuen taldeari. Luis Arrietak aurkeztu zuen hautagaitza alderdian eta 1983ko maiatzean hartu zuen alkate kargua Beitiak. Enpresa mundutik iritsi zen politikagintzara. Lanbide Heziketan maisu ibilia zen ordurako Mekan, eta tratu handia zeukan Elgoibarko enpresa-jendearekin. Zubacor enpresa zuzentzen zuen beste lagun batzuekin batera, eta Izpin jardun osoz lan egin.

Alkate, garai zailetan

Seigarrenez aita izan berritan hartu zuen alkatetza, eta beti nabarmendu ohi zuen hori, berak etxetik kanpoko ardurei kolpe egiteko emazteak, Ana Mari Arriolak, etxean egin behar izan zuen lan handiari balioa emanaz. Ez zuen legegintzaldirik errazena izan alkate zela. Hasteko, kargua hartu eta gutxira, 1983ko abuztuan, urak hartu zuen Elgoibar, Txiki Egunez. Babes Zibilerako Legerik ere ez zegoen artean. Hondamendi hari beste bat gehitu zitzaion gero 1988an, bestetik burua altxatzen hasi zirenean.



Ane eta Lucio Beitia Elgoibarko udaletxeko balkoian.

Ez zituen ahazteko egun haiek Beitiak. Gerrira arteko botak jantzi eta pala eskuan hartuta ibili zela kontatu zigun 2017ko martxoan Ane Beitia alabari eta biei egindako elkarrizketan. "Botak kentzeke egin nituen hiru egun", zioen. Uholdeen ostean konpondu zituzten ubideak eta zubiak, hitzartu zuten Mendaroko ur biltegitik ura ekartzea ere eta ospitalea Mendaron egin zedin ere hamaika batzarretan parte hartu zuen, beste batzuekin batera. Giro politiko eta soziala bor-bor zegoen garai hartan Elgoibarren. Batetik, droga kontsumo handiko garaiak ziren. Heroinak eta hiesak min handia egin zuten, eta, bestetik, egoera politikoa ere gaiztotua zegoen. Indarkeria, Estatuarena nahiz ETarena; langile borroka... garai konplikatuak zen, eta indarkeria bere larruan ere bizi izan zuen Beitiak herrian bertan. "Askotan tokatu zitzaizkidan aitaren kontrako kartelak ikustea. Dianan sartuta jartzen zuten, edo akabatuko zutela idazten zuten bere argazkiaren ondoan", oroitu zuen alaba Anek 2017ko elkarrizketa hartan.

Luciok berak aitortua da berriro saiatzeko gogorik gabe laga ziola alkate izateari, legegintzaldia amaituta, baina satisfazio handia izan zela handik urte batzuetara alaba Ane Elgoibarko alkate izendatzea (2015-2023).

Gipuzkoako Txapelketako final-laurdenetarako txartel bat izango dute jokoan etzi sei bertsolarik Elgoibarren

Joan zen astean jokatu ziren Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final-zortzirenetako bi saio, Urretxun bata eta Lasarten bestea, eta asteburuan jokatu dira beste biak: Bata, bihar, hilak 21, Lazkaon, eta bestea, etzi, hilak 22, Elgoibarren. Joan zen asteburuko kantaldietan, Andoni Rekondo eta Amaia Iturriotz bertsolariak sailkatu ziren zuzenean final-laurdenetarako, eta asteburu honetan beste bi sailkatuko dira, Lazkaoko eta Elgoibarreko saioetan puntu gehien batzen dituzten biak.

Lazkaon, Beñat Iguaran, Gorka Maiz, Iban Urdangarin, Iñigo Gorostazu, Julen Zulaika eta Oihana Arana arituko dira kantuan, Aleria aretoan, eta domekan beste sei bertsolari igoko



dira Herriko Antzokiko oholtzara: Eli Pagola, Eneko Araiztegi, Iñaki Apalategi, Libe Goenaga, Unai Izagirre eta Uxue Fernandez. 17:00etan izango da bertso saioa, eta sarrerak salgai daude www.bertsosarrerak.eus webgunean. Aurrez sarrera guztiak amaitzen ez badira, txarteldegian bertan ere erosi ahal izango dira domekan, 16:00etatik aurrera. Herriko Antzokiko atea 16:30ean zabalduko dute.

Edoskitzeari buruzko argazki erakusketa, Elgoibarren

Irailaren 26an zabalduko dute amagandiko edoskitzeari buruzko argazki erakusketa Elgoibarren, Kultur Etxeko erakusketa gelan, eta hiru egunez egongo da bisitatzeko aukera. Debarrenako ESik antolatu du erakusketa, Elgoibarko Udalaren laguntzarekin, eta Zaintetan Bikaintasunarekin Konprometitutako Zentron proiektuaren barruan. Erakusketa ikusi nahi duenak hauxe du ordutegia: eguen eta barixakuetan 18:00etatik 20:00etara, eta zapatuan eta domekan, 11:00etatik 14:00etara.



Mokadua eta bertso saioa izango dituzte gaur Mendaroko Gaztetxean



Bertso saioa antolatu du Mendaroko Gazte Asanbladak gaur gauerako. Gaztetxean izango da saioa, eta lau bertsolari arituko dira kantuan, tartean Aitor Zubikarai itziartarra, joan zen domekan Lasarten Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final-zortzirenetako saioa jokatzetik datorrena. Harekin batera arituko dira kantuan Bittor eta Txaber Altube anaia abadinoarrak eta Maide Garmendia zaldibiarra (Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako udaberriko sailkapen fasean kantatu zuen, baina ez zuen lortu udazkenekora sailkatzerik). 22:00etan hasiko da bertso saioa, baina aurrez, 21:00etan, mokadua emango dute Gaztetxean.

Agosti Xaho idazlearen bizitza eta ideologia aztergai, Elgoibarren



Liherr taldeko abeslari Libe Hernandori egindako elkarrizketa musikatua antolatu du EMEk irailaren 25erako



EME Elgoibarko Musikarien Elkartek elkarrizketa musikatua antolatu du irailaren 25erako (eguztina). Libe Hernandi abeslari eta gitarra jotzailea gonbidatuko dute, Liherr taldeko abeslaria, eta saioa Kultur Etxeko Sotoan izango da, 19:00etan hasita.

Karlistaldiak: XIX. mendeko gerra zibilak... eta gero hitzaldi zikloaren barruan, Agosti Xaho. Lehen karlistaldiaren kontaketa izenburuko hitzaldia -zikloko azkena- emango du Xabier Zabaltza Euskal Herriko Unibertsitateko Historia irakasleak Elgoibarren irailaren 26an. Aita Agirre kulturguneko areto nagusian izango da hitzaldia, 19:00etan hasita. Hitzaldian Agosti Xaho zuberotar idazle erromantikokoaren bizitza eta ideologia izango ditu aztergai Zabaltzak, eta azpimarra egingo du hark Euskal Herriaz eta karlismoaz zeukan iritzia azaltzean. Era berean, Zumalakarregiz eraiki den irudian izan zuen eraginean ere jarriko du arreta, antolatzaileen esanetan.

Illunberri Achademiak eta Elgoibarko Izarrako Euskaltzaleon Topaguneak antolatu zuten hitzaldia, Elgoibarko Udalaren babesarekin.

Dolmenen Ibilbidera bisita gidatua egiteko aukera izango da irailaren 22an, euskaraz

Debegesak antolatuta, Dolmenen Ibilbidea gidari baten laguntzarekin ezagutzeko aukera izango da irailaren 22an, 10:00etan. Euskaraz izango da ibilaldia, eta izena eman beharko da 657 794 677 telefono zenbakira deituta edota info@begi-bistan.com helbidera idatzita.

Judash taldeak izen bereko estreinako diskoa kaleratu du



Hodei Otegi elgoibartarra taldekide duen Judash taldeak estreinako diskoa kaleratu du, *Judash* izenburupean. Judas Argarate bezala hasi zuen taldeak ibilbidea, baina diskoa kaleratzerakoan izen berria jarri diote taldeari ere. 2023an hasi zituzten grabaketak Walter Tuzzeo soinu teknikariarekin, baina hura hil ostean, Axular Arizmendik hartu zuen nahasketen ardura. Mutrikuko AME estudioan grabatu dute eta Baionan masterizatu du lana Paxkal Etxeparek. Rock eta heavy estiloko 11 kanta ditu diskoak, eta dagoeneko salgai dago. Plataforma digitaletan erosi daiteke, eta Elgoibarko Tantaka tabernan ere eskuratu daiteke diskoa.

Bost musika talde, eta jaialdi txikien magia eta gertutasuna bilduko ditu bihar Mendaron Gararockek

Talde gonbidatuak zeintzuk izango ziren aurreratua zuten, baina asteen jakinarazi dituzte kontzertuen ordutegiak eta lekuak.

Head Holes (17:30ean, Garagartzako plazan)

Head Holes talde bilbotarrak hasiko du jaialdia. Eder del Valle, Jon Mikel Batiz, Xabier Aguado eta Naroa Esturok osatzen dute taldea, 90eko hamarkadako punk-rockaren, grungearen, hard rock klasikoaren edo country punkaren artean dabil euren estiloa, eta bi urteko ibilbidean bi disko kaleratu dituzte. Talde gaztea da oso, baina etorkizun handikoa.

Pelax (19:00etan, Garagartzako plazan)

Head Holes taldekoen atzetik Pelaxekoak igoko dira oholtzara. Unai Pelayo musikariak sortu zuen Pelax, 2013an, baina hasieran bakarkako proiektua zenak talde izaera ere badu gaur, nahiz oraindik bakarka ere aritzen den tarteka Pelayo. Mendarora, nolana ere, taldearekin dator. Bere ibilbidean bost disko luze argiratuak ditu Pelaxek, azkena iaz, *Esan gabe doa* izenekoa.

Bertso eskolako agurrak

Mendaron, Eusebio Mugertza *Txirristaka* bertsolariaren jaiotzaren 150. urtemuga ospatzen ari direla-eta, bertso eskolako ikasleak gonbidatu dituzte aurten kantura antolatzaileek. Hamabi neska-mutil arituko dira kantuan, bertsoa eta rocka uztartzeko ahaleginean.

Gailu (20:30ean, Musika eskolako terrazan)

Andoaindik datoz. Luis Andre bideogileak eta Mikel Abrego musikariak sortu zuten Gailu. Abiapuntua, trafikoa kudeatzeko Bilbon 1997an ezarritako kamera sarea izan zen. Kamerek hartutako irudiekin 40 minutuko bideoa grabatu zuen Andrek kontrola eta zaintzaren gaineko hausnarketa egiteko, eta Abregok musika jarri zion. Doinuak *Kutxa beltza* (Metak, 2002) diskoan bildu zituzten. Urteetako etena izan



📷 Juxe

zuten gero, eta *Begiak, egia ba ote?* (Bidehuts, 2021) argitaratu zuten gero, eta 2023an, berriro ere, Bidehuts zigiluarekin, *Autosuntsipena hasi da 3, 2, 1... znort!!!*.

Mice (22:00etan, Garagartzako plazan)

Miren Narbaiza Martiartu musikari eibartarraren proiektua da Mice, 2017an sortua. Napoka Iria taldean hainbat urtez aritu ondoren sortu zuen Mice. 2019an *Zilar printzak* lana eman zuen argitara, eta *Lautada* diskoa argitaratu zuen gero 2022an. Taldearekin dator bihar Mendarora.

Belako (23:30ean, Garagartzako plazan)

Belakok itxiko du gaua. Mungiarrek dira Belakokoak eta entsegatzen duten auzoari zor diete izena. 80ko hamarkako new wave estiloan inspiratuta sortu zuten taldea, baina laster egin zuten salto soinu berriagoetara, post-punka ukitu elektronikoeekin konbinatuz. 2012an *Gaztea* maketa lehiaketa irabazi zuten eta Radio 3ekoan hirugarren postua lortu zuten. Hasi baino ez ziren egin. Gaur bost disko dituzte argitaratuta, azkena iaz, *Sigo regando* izenekoa. Bilbao BBK Live jaialdian, Donostiako Jazz jaialdian... jotakoak dira.

Oharra: Euria egingo balu, San Agustin kulturgunera aldatuko lituzkete kontzertu guztiak.

Musika elektronikoak hartuko du Azkue bihar

Balza, Enrico Vivaldi, Jainaz eta Acelga artisten musika elektronikoaz gozatzeko aukera izango da bihar, hilak 21, Azkue auzoan egingo duten Dantz Point jaialdian, doan. Horiez gain, baina, Elgoibarko Alternative Division kolektiboak ere parte hartuko du. Kultura elektronikoa zabaltzeko, Elgoibarko hiru lagunek sortutako proiektua da Alternative Division, eta herriko DJen aldeko apustua egiten dute. 2023. urte amaieran zigilu gisa jarri zen martxan eta, gaur arte, 5 EP kaleratu ditu taldeak. 18:00etatik 00:00etara arte iraungo du Dantz Pointak.

Jainaz eta Acelga: Umetatik hasi ziren elkarrekin musika partekatzen, bereziki minimal, techno eta house musika, baina urteekin soinu espektra zabaltzen zuten. Saio eklektikoak egin ohi dituzte.

Balza: Musika elektronikoan murgilduta ibili da, eta kolektibo, irrati, klubon gestioaz eta programazioaz arduratu da. 2015etik, *Haus Of*



Beats asteroko irratsaioa aurkeztu eta zuzentzen du Bergarako Txapa Irratian. 2019an musika zigilu ere bihurtu zen, eta gaur egun arte, lau artistaren beste hainbat lan kaleratu ditu binilo, kasete eta formatu digitalean.

E. Vivaldi: Urteetan disko-biltzaile saiatua izan da eta Milandik (Italia) dator. Ezagutzen dutenek diote soinu ilunak zein argiak biltzen dituela eta oraina eta iraganaren artean ehuntzen dituela techno, progressive, elektro eta gainerakoak.

Dantzek antolatuko du Dantz Pointa, Elgoibarko Udalarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Gazteria Sailarekin elkarlanean eta Keler etxearen laguntzarekin.

Ibil Bedi eta Gilipojazz taldeek joko dute aurten Sinuöseren Sotoko Hotsak zikloan

Irailaren 26 eta 27rako antolatu du Sinuöse kultur elkarteak urteroko Sotoko Hotsak jaialdia, eta bi talde ekarriko dituzte aurten: Ibil Bedi talde nafarra eta Gilipojazz hiruko madrildarra. Bi kontzertuak Kultur Etxeko Sotoan izango dira, eguenekoa 22:00etan eta barikukoa, 23:00etan hasita. Sarrerak bost euroan jarriko dituzte salgai egunean bertan, aretoko sarreran.

2018. urtean Nafarroan sorturiko pop musika taldea da Ibilbedi, eta Irunberri, Erriberri, Zangoza eta Iruñeko bost lagunek osatzen dute. Hiru disko dituzte argitaratuta. *Berandu baina garaiz* izan zen euren estreinako lan luzea (2019), eta gero etorri ziren *Beltxarga beltza* 2021ean, eta *Goldea*, 2023an. Kultura iraultzeari egiten dio errerentzia azken diskoko izenburuak. "Kulturak funtzionatu behar duela golde batek bezala", zioen Ibañ Osinagak *Argia* agerkariari emandako elkarrizketan, eta zuzeneko zioen



diskoan ez duten beste toki bat hartzen dutela kantuek kontzertuetan. Gehitu guzti horri kontzertua Sotoan izango dela eta Sinuösekoen eskutik, eta kontzertu berezia izateko osagai guztiak ditu.

Madrildik datorren hiruko taldea da Gilipojazz. Iker Garcia (gitarra), Angel Caceres (baxua) eta Pablo Levinek (batera) osatzen dute eta proposamen ezberdin bezain berezia da haiena. Funka, rock progresiboa, metala eta musika klasikoa nahasten dituzte, umore ukitu handia gehituta. Musika instrumentala egiten dute bereziki, baina badituzte kantatutako kantuak ere.

Jendea Mintxetara erakarri eta ilusioa piztu nahi ditu C.D. Elgoibarrek

Denboraldi berrirako dituzten asmoen eta nahien berri eman du C.D. Elgoibarrek. 520 bat lagunek dihardute futboleko Club Deportivo Elgoibarren; 20 taldeetan eta Futbol Eskolan banatuta. Azken horretan, Futbol Eskolan, 120 bat neska-mutil arituko dira aurten. Iazko talde kopuru bera izango du aurten klubak, kadeteen talde bat gutxiago eta alebinetako bat gehiago. Gizonezkoen taldeak dira hamabost eta emakumezkoenak bost. Fitxak gutxitu behar izan dituzte hainbat taldeetan, eta deskarte horiek egitea izan dela gogorrena esan du Txus Altzaga presidentek. "Gurasoei berri ematea izan da gogorrena, baina dauzkagun baliabideetara moldatu beharra daukagu. Futbol zelai berri bat izango bagenu, denentzako lekua izango genuke taldeetan. Gainera, horrenbeste talderen entrenamenduak antolatzea buruhauste handia da", dio. Entrenamenduetarako zelaigune berri bat egiten ari dira portierietako baten atzean, baina presidentearen hitzetan ez da nahikoa leku faltaren arazoa konpontzeko. Osterantzean gustura da azken asteetan Mintxetan egin dituzten berrikuntzekin, argiteria eta bozgorailu sistema berri baimatuzte, eta Alzagak eskerrak eman dizkio Udalari. Kirol arloan zaleen artean ilusioa berpiztea eta Mintxetako harmailetara jende gehiago erakartzea direla euren helburu nagusiak azpimarratu du Alzagak. Gizonezkoen Haundi taldea asko gaztetu dela azaldu du, eta esperientzia falta hori igarriko dutela denboraldi



hasieran bereziki. Joan zen zapatuan hasi zuten liga txapelketa Mutrikun, banako berdinketa batekin. Emakumezkoen Haundi taldean bestelakoa da egoera. Apenas egon da aldaketarik iaztik hona, kadeteetatik senior mailarako jauzia egin duten hiruzpalau jokalaririk dira berritasun nagusia. Domekan egingo dute Ligako debuta, Mintxetan, Antiguokoren aurka. "Mailari eustea izan zen iaz izan genuen helburua, eta iazko sailkapena hobetzea izango da aurtengoa". Kirol kontuak aparte lagata, zuzendaritzaren helburu nagusia dirua lortzea izango da denboraldi honetan. "Handiak dira gastuak, gutxi edo gehiago entrenatzaile guztiek kobratzen baitute zerbait, taldeen bidaietarako ere dirua behar da, eta gastu guztiei aurre egiteko diru sarrera gehiago behar ditugu. Mintxetako hesi guztiak publizitatez betetzea da gure buruari jarri diogun erronka, eta Elgoibarko eta Mendaroko enpresa guztiak eskatuko diegu euren laguntza eta babesa", azaldu du.

Eskubaloia plazara aterako du Sanlok gaur

Eskubaloia plazan izeneko ekitaldia antolatu du Sanlok gaur arratsalderako. 18:00etatik 20:00etara egingo dute Kalegoen plazan eta 2013tik 2016ra jaiotako neska-mutilak animatu dituzte parte hartzera. "Etorri eta disfrutatu, zure zain gaude", esan diete gaztetxoei.



Valentin Romeraren oroimenezko txirrindulari lasterketa jokatuko dute domekan

Elgoibarko Lagun Taldea txirrindulari eskolak antolatuta, Valentin Romeraren Oroimenezko Elgoibarko Hiria Saria txirrindularitza lasterketa jokatuko dute domekan, eta taldeko lau txirrindulari lehiatuko dira etxeko proban: Iñaki Astigarraga, Unai Cornejo, Aimar Gonzalez eta Bryan Jaramago. Junior mailako eta kadeteetako bigarren urteko txirrindulariek hartuko dute parte Elgoibarko proban, eta denboraldiko azken lasterketa izango dute. Kalegoen Plazatik abiatuko dira 09:55ean eta Idotorben izango da helmuga,



12:00ak inguruan. 83 kilometroko ibilbidean Bergararaino joan beharko dute birritan eta indarrak gorde beharko dituzte Idotorbeko malda pikoak igoz amaituko baita proba.

Izarraitz eta Karakate artean jokatuko dute Debabarreneko raida

Morkaiko Raid Taldeak antolatuta, Debabarreneko Orientazio Raida jokatuko dute irailaren 28an, eta 26a izango da izena emateko azken eguna. Azken urteetan moduan, bi modalitatetan parte hartzeko aukera izango da, Abentura eta Familia raidetan. Lehena bikoteka osatu beharko da eta zazpi orduko muga izango dute parte-hartzaileek proba bukatzeko. Familia Raida, aldiz, bi eta bost pertsona arteko taldetan jokatuko dute (horietatik bat, gutxienez, adinez nagusikoa), eta proba bereziak osatu beharko dituzte bidean.

Proba nagusia trekking ikusgarri batekin hasiko dute 10:00etan Aittola, Xoxote eta Erlo inguruetan. Ibilbide guztia osatzen duten bikoteek 19 kilometro (1.400 metroko desnibel positibo) egingo dituzte eta eskalada eta norabideetan oinarritutako orientazio proba bereziak ere gainditu beharko dituzte. Ondoren, mendiko bizikleta hartu eta Irukurutzeta eta Karakate inguruetan barrena ibiliko dira, bide gogor eta tarteka zailtasun tekniko handikoetan, 27,5 kilometroko ibilbidean (975 m+). Bigarren btt ibilbide bat ere egongo da aukeran, trekkinga lasaitasun handiagoz egitea nahi dutenentzako edo mendiko bizikletan



denbora gutxiago aritu nahi dutenentzako, apenas desnibel positiborik izango duena. Proba 17:00etan amaituko da.

Familia raida 11:00etan hasiko da Aittolako aparkalekutik, eta 13:30etan bukatuko da leku berean. Oinez edo korrika txikian, 8,5 kilometroko ibilbidean sakabanatuta dauden balizak jaso beharko dituzte paraje ikusgarrietan. Tarteka proba berezietan hartuko dute parte, besteak beste, memorian oinarritutako orientazioa, slacklinea, orga jokoa, eskalada eta norabideetan oinarritutako orientazioa egingo dituzte. Guztira 425m+-eko desnibela izango da, baina ez da nahitaezkoa ibilbide guztia osatzea.

Sydneyko maratokia egin du Igor Torresek

Munduko maratoi lasterketa nagusiek osatzen duten lasterketa multzoa da Abbott World Marathon Majors (WMM). Munduko sei maratoi ezagunenak osatzen dute (Tokio, Boston, Londres, Berlin, Chicago eta New York), eta horien artean egoteko hautagaia da Sydneyko maratokia. Horrez gainera, aurtengo edizioan adin tartekako munduko txapelketa ere jokoan izan da. Igor Torres Castilla elgoibartarrak Valentziako maratoiaren hartu zuen parte abenduan, eta bi ordu eta 35 minutu azpitik bukatzea lortu zuenez, bere adin tartekoen Munduko Maratoi Txapelketarako sailkatzea lortu zuen. "Familiakoek parte hartzera animatu ninduten eta entrenatzen eman dituzt azken hilabeteak", azaldu du. Entrenamenduetan sentrazio oso onak eduki zituela dio, eta gogotsu zegoela Australiarantz joateko. Halere, azken hiru asteetan ezin izan zuen nahi izango lukeen moduan entrenatu, abduktoreetako lesio bat medio, eta minez heldu zen Sydneyko irteerara. "Lehen hamar kilometroak nahi nuen erritmoan egin ahal izan nituen arren, hortik aurrera erritmoa moteldu ezean helmugara ez nintzela helduko ikusi nuen, eta horixe izan nuen helburu bakarra, pilotu automatikoa martxan jarri eta nola edo ahala iristea. Halere, azken asteetan eduki nituen arazoak ikusita, pozik nago lortutako emaitzarekin, balio handia ematen diot nagoen egoeran lortutakoari. Ez da izan nire lasterketarik distiratsuen, bai ordea gehien borrokatu



naizenetako bat. Gainera, Sydney sekulako hiria da eta hango kaleetan korrika egitea plus bat izan da", azaldu du Torresek Australiako Koral Hesi Handitik idatzitako mezuan; Antipodetara eginiko bidaiaren probesten ari baita hango inguruak ezagutzeko. Bi ordu eta 53 minutuan osatu zuen 42 kilometroko lasterketa, 390. postuan sailkatuta.

Irailaren 30ean hasiko du denboraldia Mintxeta Atletismo Taldeak

Mintxeta Atletismo Taldeak hil bukaeran ekingo dio denboraldi berriari, irailaren 30ean, 18:30ean hain justu ere. Elgoibar edo inguruko herrietako zortzi urtetik aurrerako neska-mutilek batu ahal izango dute taldera. Bi multzotan banatuta arituko dira taldekideak. Talde batean 8 eta 13 urte artekoak eta 14 urtetik gorakoak beste taldean, batetik bestera aldatzeko aukera egongo den arren. Gaztetxoek astean bi entrenamendu saio egingo dituzte Mintxetan, astelehenetan eta eguaztenetan, eta koskortuagoek hiru saio (astelehena, eguaztena eta barikua). Atletismoak dituen diziplina guztiak lantzeko aukera izango dute. Mintxetakoek hainbat lasterketetara joateko aukera eskainiko



diete eta txango bereziren bat ere egingo dute. Kuota ordaintzerakoan kirol ekipazioa jasoko dute. Informazio gehiago nahi izanez gero, edota taldearen izena emateko e-posta mezu bat idatzi beharko dute interesatuek edo Instagramen duten kontuaren bitartez harremanetan jarri.

LANA**Eskaerak**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia eta titulu soziosanitarioa ditut. Erreferentziak. **660 919 423**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia daukat. Etxeko langile moduan edo orduka aritzeko prest. **632 708 954**

Gazte euskalduna, goizetan umeak eskolara eramateko prest. **695 370 390**

Adinekoen zaintzan (titulu soziosanitarioa daukat) edota administrazio-kudeaketan lan egiteko prest nago. **624 121 726**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. **631 584 186**

45 urteko emakumea lanerako prest. Arduratsua naiz eta lanerako beharra daukat. Ume zein nagusi zaintzeko prest nago eta garbiketara lanak ere egiten ditut. **679 137 966 (Cristina)**

Gaztea, umeak eskolara eramateko prest. **688 609 045**

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Titulu soziosanitarioa daukat. **643 085 598**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan, orduka, gauzez, ospitalean... Titulu soziosanitarioa eta esperientzia ditut. **602 490 595**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Titulu soziosanitarioa daukat. **647 554 386**

Adinekoak zaintzeko, mekanika lanak egiteko, mudantzetarako... prest. Esperientzia eta titulu soziosanitarioa. **614 114 360**

Adinekoak zaindiko nituzke. Erizaina naiz eta titulu soziosanitarioa daukat. Esperientzia. **643 505 662**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan. Asteburuetan ere egingo nuke lan. Esperientzia handia eta erreferentzia ezin hobeak eskaini ditzaket. **632 711 473**

Gizonezkoa, edozein lan egiteko prest. Malgutasun osoa eta lanerako gogo handia. **632 721 342**

Eskaintzak

LH5eko ume bati ingeles eskolara emateko pertsona baten bila gabilta. Astean bi ordu. **622 815 242**

ETXEBIZITZAK

Logela bateko apartamentua alokatzen dut San Frantzisko kalean. Altzariz hornitua. **605 083 955**


Bi ikasle elgoibartar gara. Donostian ikasle-pisuan gaude eta logela bat libre daukagu. Interesa duen ikasleren baten bila gabilta. **609 170 512**

KINTOAK

1949an jaiotako kinto ospakizuna, irailaren 28an. 13:00etan San Bartolome parrokiako aterpean elkartuko dira erretratua ateratzeko. Luntxa Ibaiondon izango da, eta bazkaria, berriz, Sigman. Interesatuak 70€ sartu behar dituzte kontu honetan izen-abizenak zehaztuta: ES24 3035 0007 2500 7114 4032. Azken eguna: irailak 25.

  <p>ROSA MA PINTADO</p> <p><i>Etaldeko Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Gure komunitatean estalkiaren zati bat erabiltzen du jabekide batek. Konponketa batzuk egin behar ditugu eta jakin nahi nuke nork ordaindu behar dituen konponketa horiek.</p> <p>Lehenik eta behin, kontuan hartu behar da erregistro-dokumentazioan erabilera pribatiboko elementu komunetan egin beharreko konponketei buruzko adierazpenik ezartzen den. Ezer aurreikusituz ezean, jurisprudentziak adierazten du elementua mantentzea eta zaintzea erabilera esleitura duen jabeari dagokiola, eta egiturazko akatsengatik egin beharreko konponketak, berriz, komunitatearen kontura izango direla. Egoera horretan, komunitateak jabekidearen aurka egin dezake kalteak elementu komunaren erabilera desagokiaren ondorio badira. Hori kontuan hartuta, komunitatearen betebeharra da eraikinaren estalkia isolatzeko lanak egitea, estalkia erabilera pribatibokoa izan arren. Eta, ildo beretik, erabilera pribatiboko terraza-estalkiaren iragazgaitzearen egoera txarrak eragiten dituzten iragazketak, komunitateak dagozkion konponketen erantzukizuna izango du.</p> <p>ONDORIOA: Erabilera pribatiboko duten terraza eta patioa konpontzeko gastuak jabe guztiak hartu behar dituzte beren gain, betiere eraikinaren egiturazko edo segurtasun-baldintzei eragiten badiete.</p> <p>GOAR AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
--	--



Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, barren@elgoibarkoizarra.
eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **Laia!** 5 urte handi! Ondo pasa zure egunean! Muxu potoloak, etxekoan partez.



Zorionak, **Sara,** irailaren 18an 7 urte bete zenituelako. Familiako guztion partez.



Zorionak, **Malen!** 7 urte handi! Primeran pasatuko dugu igandean.




Zorionak, **Martina!** Etxeko guztion partez. Igande polit bat pasa dezazula, Nora, Peio eta Danelekin jolastuz.



Zorionak, **Paul!** Gaur 7 urte! Oso ondo ospatu! Patxo handi bat etxekoan partez.



Zorionak **Maialen!** Dagoeneko 5 urte potolo! Oso ondo pasatu zure eguna!



Bihar, Gararockekin batera, zure urteguna, **Luken.** Zorionak, eta gozatu eguna merezi duzun bezala! Etxekoan eta lagunen partez, muxu bat.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€.
Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€
Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



Jon Aranao
Guillermo Torres

Elgoibar
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Asteleheneetik ostiralera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbatak: 11:00 - 13:00

Ilarpoindegi zerbitzua daukagu.
Deitu ordua hartzeko.



KONTSULTATEGIA

Noiz ez da beharrezkoa azkenaginak (juizioko haginak) kentzea?

Azkenaginek mina eta arazoak sortzeko joera handiagoa dute beste hartz-atal batzuek baino, baina hori ez da beti gertatzen. Normaltasunez hazten direnean eta haginakada desegokiak alteraziorik sortzen ez dutenean, ez dago ateratzeko arrazoirik.



Era berean, hagin hauek guztiz haztea garrantzitsua da, eguneroko hartz-higienea errazteko; izan ere, garbiketa zailtzen bada, litekeena da hagin horietan arazoak sortzea. Hagin hauekin zerikusia duten legenda beltza guztiak alde batera uztea ere komeni da eta edozein hartz-piezaren irizpide berarekin aztertzea.

Leku egokian hazi dira? Normaltasunez garatu dira? hartz-higiene normal bat egiteko tartea dute? Ez dute eragozpenik sortzen?

Galdera horien erantzuna positiboa bada, azkenagin horiek prebentzios kentzeak ez du zentzurik, ezerk ez baitu adierazten etorkizunean konplikazio-iturri izango direnik. Gainera, hori izaten da ohikoena, eta ez dauka zentzurik existitzen ez den arazo bati irtenbidea ematea.

Garrantzitsuena zure konfiantzazko dentistarengana joatea da, jarraipena egiteko eta azkenaginak kontrolpean izateko.

ALDAZ HORTZ KLINIKA
San Bartolome, 22 - 20870 Elgoibar
iyd@dentalaldaz.com
943 366 377

20 BARIKUA

21:00 Bertso saioa. Mendaroko Gazte Asanbladak antolatuta, Mendaroko gaztetxean.

21 ZAPATUA

11:00 Dantz point. X alternative division, DJ Masterclass saioa. Gaztelekuan.

17:30 Gararock jaialdia. Mendaroko Garagartzako plazan.

18:00 Musika elektronikoaren jaialdia. Azkue auzoan.

22 DOMEKA

10:00 Bisita gidatua: 'Dolmenen ibilbidea'. Debegesak antolatuta, Karakate gainean.

Euskaraz izango da ibilbidea. Erreserba egiteko: 657 794 677 edo info@begi-bistan.com

17:00 Gipuzkoako bertsolari txapelketako final zortzirenetako kanporaketa. Herriko Antzokian.

23 ASTELEHENA

16:00 Zaintzako eta etxetzeko lanei buruzko aholkularitza. Merlin Medinarekin, Lilan.

Bakarkako saioak dira, eta izena eman behar da: 688 640 983 edo elgoibarkozaintza@gmail.com.

18:00 Tailerra: Baratzeko plangintza, errotazioa eta asoziazioa. Urruzunuko baratzean, Furgobaratzaren eskutik.

24 MARTITZENA

19:00 Hiri-espazioa berrirudikatzen: Hirigintza eta mugikortasuna generoaren ikuspegitik.

Haizeak eta Altzolan Tren Geltokia Bai plataformak antolatuta. Lilan.

25 EGUAZTENA

18:00 Solasaldia: 'Zeure burua maitatu, zaindu eta izan zoriontsu'. Haizeak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du saioa. Lilan.

19:00 Elkarrizketa musikatua: Libe Hernando. EMEK antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

26 EGUENA

18:00 Argazki erakusketa: Amagandiko edoskitzea. Kultur Etxean.

19:00 Hitzaldia: Agosti Xaho: 'Lehen Karlistaldiaren kontaketa'. Ilumberri Achademiak, Elgoibarko Izarrak eta Udalak antolatutako *Karlistadak: XIX.mendeko gerra zibilak...* eta gehiago hitzaldi-zikloaren barruan. Aita Agirre kulturgunean.

22:00 Sotoko hotsak: Ibil Bedi taldearen kontzertua. Sinuösek antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

27 BARIKUA

19:00 Antzerkia: 'Todas las hijas'. Herriko Antzokian.

23:00 Sotoko hotsak: Gilipojazz taldearen kontzertua. Sinuösek antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

EXPRESS ESKAINTZAK!

BOSCH WUU28T61ES
ARROPA GARBIGAILUA

A
T
G

A



555 €

- 9Kg-ko karga
- 1400 b/min
- Speed Perfect
- WaveDrum danborra
- Karga-eternaldiaren funtzioa
- Hygiene Plus 40° garbiketa

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

Iñaki Agirre zinemaldia (Ongarri zinekluba)



'La casa'

20 barikua: 19:00
 21 zapatua: 19:00 / 22:15
 23 astelehena: 21:00



'Siempre nos quedará mañana'

25 eguaztena: 21:00
 26 eguena: 21:00

2024ko botika ordutegiak:
 09:00-13:00 / 16:00-20:00
 GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00
 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

IRAILA

20 BARIKUA	■ Soto
21 ZAPATUA	Garitaonandia
22 DOMEKA	Garitaonandia
23 ASTELEHENA	Arriola
24 MARTITZENA	■ Fernandez
25 EGUAZTENA	Yudego
26 EGUENA	■ Oruesagasti
27 BARIKUA	Barrenetxea

2024 urte guztian, gaeuz:
Lekunberri Alberdi, Mikel Isasi, 31 (Eibar)
943 204 230

■ Fernandez:	■ Soto:	■ Oruesagasti:
Herriko	Rekalde, 1	Kalebarren, 9
Enparantza,4	(Soraluze)	(Soraluze)
Garagartza	943 751 638	943 751 384
(Mendaro)		
943 756 142		

<h1>Osasun gida</h1>	<p>RPS233/13 943 366 377 San Bartolome, 22 20870 Elgoibar</p>	<p>NATUR HOUSE Ainara Iriondo Ansola GIZA ELKADURAN ETA DIETETIKAN DIPLOMATUA RPS 203/16 Toribio Etxebarria, 22 Eibar 677 551 850</p>	<p>fisio&más Fisioterapia aurreratua eta Kirol Berregokitzea Trenbide kalea, 13 943 740 191 / 667 953 628 www.fisio-mas.com RPS 177/19</p>
	<p>RPS 271/12</p> <p>Jausoro plaza, 6 behea Elgoibar 943 531 953 669 565 745</p>	<p>RPS 183/12</p> <p>Elgoibar 943 740 359 Deba 943 192 192</p>	<p>leku eder hortz klinika RPS 171/12 Elena Herrero Lobo Aita Agirre Enparantza, 5 - Elgoibar 943 530 053</p>



Elgoibarko Lanbide Heziketaren 125. urteurrena gogoratu zuten irailaren 18an, eta, urteurren hori ospatzeko ekintzak antolatzen ari den taldeak argazki hau bidali digu BARREnera. 1952ko ekainaren 29an ateratako argazkia da. Bernardo Ezenarriori, Elgoibarko lehen Marrazketa Eskolako zuzendariari, omenaldia egin zitzaioneko argazkia da, 1951n jubilatu ondoren. Amadeo Aizpitarte izendatu zuten zuzendari orduan, 21 urte zituela, eta berak lortu zuen Lanbide Orientazio eta Ikaskuntzako Eskola (Eskola profesionala) estatu mailan ofiziala izatea.

Argazkian, Ezenarro eta Aizpitarterekin batera, herrian oso ezagunak ziren irakasleak ageri dira. (Argazkian dauden guztiak hilda daude).

Ezkerretik eskumara: Jose Elkoro, Manolo Zabala, Amadeo Aizpitarte, German Pedrosa, Bernardo Ezenarro, Luis Mari Iriondo, Pedro Gabilondo, Vicente Elkoro eta Jose Luis Ansola.



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutzak, trasladoak eta koroak.
 Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
 Erietxe zentruetan zerbitzuak.



I. URTEURRENA

Ana Mari Loyola Oria

2023ko irailaren 20an hil zen, 84 urte zituela.

***Gure ondotik joan zara, baina betiko izango
zaitugu gure bihotzetan.***


Etxekoak



Asensio Osoro Araquistain

2024ko irailaren 16an hil zen, 89 urte zituela.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Lucio Beitia Mugabure

Elgoibarko Alkate ohia

2024ko irailaren 15ean hil zen,
86 urte zituela. Sendiak bihotzez
eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Eskerrik asko artista
emandako danagaitxik!
Beti elkarrekin jungo gera
terzerako biletiakin segundan,
PRIMERAN!***

Etxekoak



Lucio Beitia Mugabure

2024ko irailaren 15ean hil zen.

Zuk sortu eta ereindakoa zainduko dugu.

ZUBACOR-eko langileak



G R E M I O N E N G I D A



PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

LEIHOAK

ODRI
ATEAK ETA LEIHOAK

Aluminio eta PVC aroztegia

Mota guztietako leihoak; salmenta eta konponketak
Ateak, leihoak, pertsianak, barandilak,
eltro-sareak eta toloak jartzen ditugu.

662 234 609

odrileihoak@gmail.com
Sagar Eneka Kalea 2, 20800 SOBALLUIE

AROZTEGIA

BIENA, S.L.
AROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA

Pedro Mijel Urruzuno, 8
943 740 512
fax: 943 743 565
bienda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - ELGOIBAR
taller@pagoagasa.com
943 740 279

**IZURRIEN KONTRAKO
TRATAMENDUAK**

PLAGANATURA

Cuidando lo Salud Ambiental

618 198 760

ivan@plaganatura.eus
www.plaganatura.eus

AROZTEGIA

iraolagoitia

aroztegio · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutze-gain industrialdea, 9
20850 Mendara
943 756 112
636 497 485

www.iraolagoitia.com

ITURGINTZA

SANTANA

Igor Santana
ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea, 17, behea
Elgoibar

943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

KONPONKETAK

LODOSOKONPONKETAK

- ✓ Leihoak
- ✓ Pertsianak
- ✓ Arozzeria metalikoa
- ✓ PVC arozzeria
- ✓ Eltro-sareak

Errosario kalea, 13, behea
lodosokonponketak@gmail.com

943 247 659
617 585 330

AROZTEGIA

IMAR
AROZTEGIA

Olaso industrialdea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimar@hotmail.com
 @carpinteria_imar

Gidan
agertzearen onurak!

943 743 704
688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Alta Agirre Kulturgunea, 3. 3. ezk
20870 ELGOIBAR

23,82€
hilean

12
aldiz urtean

4.700
ale astero

23,82 Eren truke, hileru, zure enpresaren datuak
eta irudia erakutsiko ditugu BARREN astekarian.

BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendaron
erakusleihu ikusienua.

4.700 ale banatzen ditugu
Elgoibarren eta Mendaron DOAN.

Eman bultzada eskarari eta lagundu gure
proiektua finantzatzen.